**1go Artikulua:** Euskal Hípica Federazioaren disziplina ahalgoa, 14/1998 Legeak, ekainaren 11koa, Euskadiko Kirolari buruzkoa, 16/2006 Dekretuak, urtarrilaren 31koa, Euskadiko kirol federazioei buruzkoa, 7/1989 Dekretuak, Kirol disziplinari buruzko Erregelamendua arautzen duena eta 310/2005 Dekretuak, Kirol Justiziako Euskal Kontseilua arautzen duena, federazioko estatutuek eta disziplina erregelamedu honek arautzen dute.

Euskal Hípica Federazioaren disziplina ahalgoaren egikaritza, bertan federatuta dauden pertsona fisiko eta juridikoengain eta Federazioaren egitura organikoa osatzen duten pertsona guztiengain zabaltzen da, baita Federazioaren partaide diren pertsona fisiko zein juridikoen ordezkari moduan jarduten dutenengain.

**2. Artikulua:** Disziplina ahalgoaren eremua, indarrean dagoen Euskadiko Kirol Legean eta disziplina ahalgoa arautzen duten erregelamenduzko xedapen publikoetan horrela tipifikaturik dauden jokuaren eta txapelketaren arau-hausteetara eta kirol arau orokorren arau-hausteetara zabaltzen da, baita Euskal Hípica Federazioaren Estatutuetan eta Araudi honetan aurreikusten diren arau-hausteetara.

**3. Artikulua:** Disziplina ahalgoa, Federazioari ikertzeko eta, bere kasuan, bere disziplinaren menpe dauden pertsonen zehapenak jartzeko aintzatetsi zaion ahalmena da.

Disziplina ahalgoa ez da zabaltzen tartekari eta epaileek frogatzen edo txapelketatan duten zuzendaritza ahalgora Jokuaren Erregela Tekniko aplikatzerako orduan, ezta Txapelketa Batzordeak erregela hauen inguruan egiten duen berrikuspenera ere.

#### II. Kapituluua: Arau-Hausteak eta Zehapenak

**4. Artikulua:** Arau-hausteak bi motatakoak izan daitezke:

1.- Joko edo txapelketaren arauen urratzea.



KULTURA SAIA  
Kiral Euzkoan  
DEPARTAMENTO DE DE CULTURA  
Dirección de Deportes

2.- Kirol arau orokorren urratzea.

**5. Artikulua:** 1.- Zehapenek izaera hezigarria, prebetziozkoa eta zuzentzailea dute eta beraien ezarpenak interes orokorraren eta kirol interesaren babesa izango du helburu bezala beti. Zehapenen aplikazioan kontuan hartuko da nagusiki urratzailearen asmoa eta egite edo ez egitearen emaitza.

2.- Jokoaren zein kirol arau orokorrak urratzeagatik, dagokion disziplina espediente bitartez ezarritako zehapen guztiak, berehala exekutagarriak izango dira, baina kontuan izanda helegiteak ezagutu behar dituzten federazio, administrazio edo jurisdikzio organoek kautelazko etendura ezatzeko duten eskumena.

3.- Isun ekonomikoa suposatzen duen zehapena bakarrik jar dakieke kirolariei, teknikariei, epaileei eta pertsona juridikoei, euren jardueragatik ordainketa edo konpentsazioren bat jasotzen badute

### ***Igo Atala: Jokoaren arauen urraketak eta beraien zehapenei buruz***

**6. Artikulua:** Jokoaren edo txapelketaren arauen urraketak, Euskal Hipika Federaziak antolatutako joko edo txapelketaren ohiko garapena urratu, eragotzi eta galarazten duten egite edo ez egiteak dira.

**7. Artikulua:** Arau-hauste horien egileak Zaldunak, Entrenatzaileak, Ordezkariek zein Zuzendaritzako Buruak izan daitezke; era berean, Arbitraia Taldeko Kideak edota Elkarreak ere izan daitezke.

*Jineteek, Entrenatzaileek, Ordezkariek eta Zuzendaritza-Buruak egindako urraketak eta Zehapenak.*

**8. Artikulua:** Arau-hausteak oso larriak, larriak eta arinak izan daitezke.

Jokoaren arauen urraketan eta zehapenen inguruan, Hipikako Euskal Federazio honen barne arautegiaren parte izango dira Espainiako Hipikako Erref-Federazioko Disziplina Araudiak barnebiltzen dituen arau-hauste eta zehapenak, zeina erregelamendu honi eransten baitzaion.



KULTURA SALA  
Kiral Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE DE CULTURA  
Dirección de Deportes

## II. Atala: Kirol Arau Orokorren Urraketak eta Zehapenak

**9. Artikulua:** Kirol arau orokorren urraketak, indarrean dagoen Euskadiko Kirol Legean, disziplina ahalgoa erregulatzen duten erregelamenduzko xedapen publikoetan, Euskal Hipika Federazioaren Estatutuetan eta Araudi honetan ezarritakoaren kontrakoak diren eta aurreko atalean barnebiltzen ez diren egite edo ez-egiteak dira.

**10. Artikulua:** Arau-hausteak oso larriak, larriak edo arinak izan daitezke.

**1.- Arau-hauste oso larriak:**

Arau-hauste oso larriak izango dira beti ere ondorengoak:

a) Lortutako dirulaguntzak dagokien oinarri edo emakida akordioetan ezarritako hellburu desberdinetarako erabiltzea.

b) Dirulaguntzen emakida lortzeko beharrezkoak diren datu errealen eta dokumentuen funtsezko aldaketa.

c) Esleipen edo eskumenen legez kontrako usurpazioa.

d) Disziplina edo hauteskunde organoen kideek estatutuetao eta erregelamenduko betebeharrak modu oso larrian ez betetzea.

e) Kirol instalakuntzen segurtasun eta higieneari buruzko federazio arauak ez betetzea, horrek arrisku oso larria dakarrenean bertaratu daitezkeen pertsonentzako.

f) Segurtasun eta arrisku estalduraren inguruko arauak hausten dituzten kirol jardueren antolaketa, ekintza horrek hirugarrenetikiko arrisku oso larria sortarazten badu.

g) Estatutuetao eta erregelamenduetako arauen eta Euskal Hipika Federazioaren akordioeren urraketa errepikatua eta agerikoa.

h) Epaileei, kirolariei, teknikariei, kirol agintariei eta ofizialak diren edo ez diren froga edo txapelketetako bestelako parte hartzaileei egindako erasoak, beldurtarazpenak edo derrigortzeak.

i) Botere gehiegikeriak.

j) Froga edo txapelketa baten ospaketa galarazi edo bere behin-behineko edo behin-betiko etenaldira derrigortzen duen ~~protesta~~ edo ekitaldi kolektiboa.



k) Indarkeria bultzatzen duten kirolariek, teknikariek, epaileek eta zuzendaritza buruek egindako adierazpen publikoak eta gainontzeko egintzak.

l) Kirol jardueraren garapenera zuzendutako fondeen berariazko erabilera desegokia.

m) Debekatutako sustantzien promozioa, inzitazioa eta kontsumoa edo debekatutako metodoak erabiltzea eta horiek kontrolatzea debekatzen duen edozein egite edo ez egitea.

n) Joko edo txapelketa ofizial edo ez ofizialen emaitza aurremugatzen/predeterminatzen duten egite edo ez egiteak.

ñ) Arau-hauste larri edo oso larriagatik ezarritako zehapenen urratzea.

o) Arau-hauste larrien egikaritzan berrerortzea.

p) Kirol Justiziako Euskal Batzordearen erresoluzioak ez exekutatzeko.

q) Kirol modalitatearen garapen eta praktikarako erabat aurkakoa den beste edozein jokabide.

r) Arau teknikoaren aurkako kirol material edo ekipamenduaren manipulazioa edo aldatzea, pertsonalki zein beste pertsona baten bidez eginga, alterazio horiek frogatuta edo txapelketaren eta pertsonen segurtasuna ahuldu/aldatu ahal dutenean.

## 2.- Arau-hauste larriak:

Arau-hauste larriak izango dira beti ere ondorengoak:

a) Falta arinagatik ezarritako zehapenen urraketa.


b) Disziplina edo hauteskunde organoetako kideek euren jardueran ez aritzea edo euren funtzioak ez betetzea, beraien betebeharren ez egite oso larria ez dakarrenean.

c) Euskal Hipika Federazioko hauteskundeetarako deialdietara ez agertzea inongo arrazoirik gabe.

d) Frogaren edo txapelketaren ohiko garapena asaldatzen duen protesta egitea baina etendura/suspentzioa gertatu gabe.

e) Epaile, teknikari, entrenatzaile, kirol agintari, jokalaria eta bertaratuak publikoari eginiko irainak eta ofentsak.

f) Epaile eta teknikarie dagozkien jarduerak egitea beharrezkoa den titulazio edo baimana eduki gabe.




- g) Arau-hauste arinen egikaritzan berrerortzea.
- h) Kirol jarduera, froga edo txapelketak antolatzea ofizialak bezala, horretarako dagokion baimana eduki gabe.
- i) Jarduera publiko edo pribatuen egikaritza baldin eta horiek bateraezinak badira burututako funtzio edo jarduerarekin.
- j) Kirol txapelketaren garapenak eskatzen dituen duintasun edo modu onen kontrako ageriko jarduera.
- k) Kirol instalakuntzetan izan beharreko segurtasun eta higiearen inguruko federazio arauak ez betetzea, ez betetze horrek arrisku larria dakarrenean bertaratutako pertsonentzat.
- l) Estatutuetako edo erregelamenduko, edota Euskal Hipika Federazioaren akordioak ez betetzea.
- m) Segurtasun eta arrisku estalduraren inguruko arauak hausten dituzten kirol jardueren antolaketa, ekintza horrek hirugarrenetikiko arriskurik ez dakarrenean.
- n) Autonomi Erkidegoan dauden entitateen artean hamasei urtetik beherakoei errententzio, proroga, formazio, konpentsazio edo antzeko eskubideak exijitzeko debekuaren urraketan parte hartzea.
- ñ) Pertsona eta organo eskudunek emandako agindu, akordio edo jarraibideak ez betetzea.

### 3.- Arau-hauste arinak:

Arau-hauste arinak izango dira beti ere ondorengoak:

- a) Lotsagabeak diren oharpenak egitea epaile, teknikari, kirol agintariei, jokalariei edo bertaratutako publikoari.
- b) Jarrera pasiboa edukitzea epaileek eta gainontzeko kirol agintariiek euren funtzioen egikaritzan emandako aginduak eta jarraibideak betetzerako orduan.
- c) Ez betetze arina dakarren disziplina eta hauteskunde organoetako kideen jarduera eza.
- d) Federazioko antolakundearen barruan dauden ~~personen~~ edo entitateen kontrako agerpen publiko lotsagabeak edo iraingarriak.
- e) Arau-hauste oso larri edo larriak ez diren kirol arauen aurkako beste edozein jokabide.



## 11. Artikulua: Zehapenak.

Aurreko artikuluetan aipatutako arau-hausteak egiteagatik ezar daitezkeen zehapenak hurrengoak dira:

1.- Arau-hauste oso larriak egiteagatik:

a) Lizentziaren suspentzioa/etendura urtebete baino gehiagoko eperako eta gehienez bost urtetarako.

b) Lizentzia kentzea.

c) 6.000 € eta 60.000 € bitarteko isuna.

d) Kargu eta funtzioak egikaritzeko ezgaikuntza urtebete baino gehiagoko eperako eta gehienez bost urtetarako.

e) Froga edo txapelketak ospatzen ari diren bitartean kirol instalakuntzetara sartzeko debekua urtebete baino gehiagoko eperako eta gehienez bost urterako.

f) Kirol aretoaren itxiera hiru partidatik gehienez denboraldi batera arte.

g) Kategorias baxatzea.

h) Joku, froga edo txapelketatik behin-betiko kanporaketa.

i) Joku, froga edo txapelketatik behin-behineko kanporaketa.

j) Joku, froga edo txapelketak ateak itxita egitea.

k) Jardunaldi edo froga baten lor daitezkeen puntuak, partidak edo klasifikazio postuak galtzea.

2.- Arau-hauste larriak egiteagatik:

a) Lizentziaren suspentzioa/etendura hilabete baino gehiagoko eperako eta gehienez urtebeterako.

b) 600 € eta 6.000 € bitarteko isuna.

c) Kargu eta funtzioak egikaritzeko ezgaikuntza urtebetera arte.

d) Froga edo txapelketak ospatzen ari diren bitartean kirol instalakuntzetara sartzeko debekua urtebetera arte.

e) Kirol aretoaren itxiera bi lehiaketara arte.



- f) Joku, froga edo txapelketatik behin-betiko kanporaketa.
- g) Joku, froga edo txapelketatik behin-behineko kanporaketa.
- h) Joku, froga edo txapelketak atearak itxita egitea.
- i) Jardunaldi edo froga baten lor daitezkeen puntuak, partidak edo klasifikazio postuak galtzea.
- j) Oharrarazpen/amonestazio pribatua.
- k) Oharrarazpen/amonestazio publikoa.

3.- Arau-hauste arinak egiteagatik:


- a) Lizenziaren etendura/suspentsioa hilabetera arte.
- b) 600 € arteko isuna.
- c) Joku, froga edo txapelketatik behin-betiko kanporaketa.
- d) Joku, froga edo txapelketatik behin-behineko kanporaketa.
- e) Oharrarazpen/amonestazio pribatua.
- f) Oharrarazpen/amonestazio publikoa.

### III. Kapituluak: Erantzunkizunaren iraungipena

**12. Artikulua:** Erantzunkizunaren iraungipenaren/desagerpenaren zergaitiak.

1.- Kirol disziplina erantzunkizuna desagertu egiten da beti ere:

- a) Zehapena betetzeagatik.
- b) Arau-haustearen preskripzioagatik.
- c) Zehapenaren preskripzioagatik.
- d) Zehapena jarri zaion pertsonaren heriotzagatik.
- e) Zehapena jarri zaion kirol entitatearen desagerpenagatik.



f) Zehapena parkatzeagatik.

2.- Federatu izaera galtzeak ez dakar disziplina erantzunkizunaren desagertzea ezarritako zehapenen eragingarritasunari kalte egin badiezaioke.

### **13. Artikulua:** Arau-hausteen eta zehapenen preskripzioa.

1.- Arau-hausteak oso larriek hiru urteko preskripzio epea dute, larriek urtebetekoa eta arinek hilabetekoa, eta preskripzio epea zenbatzen hasten da arau-haustea egin den egunetik. Jarduera jarraitu batetik ondorioztatzen diren arau-hausteen kasuan, preskripzio epearen hasierako data jardueraren amaierakoa edo arau-haustea gauzatzen de azkeneko egintza izango da.

2.- Zehapen prozeduraren hasieraren jakinarazten den momentutik etengo da preskripzio epea. Prozedura hau hilabete baino gehiagoko epean geldirik badago, prozedura horren inguruko erantzunkizuna duen pertsona edo erakundearen errurik gabe, epea berrari hasiko da zenbatzen.

3.- Arau-hauste oso larriengatik ezarritako zehapenek hiru urteko preskripzio epea dute, arau-hauste larriei ezarritako zehapenek urtebeteko preskripzio epea eta arau-hauste arinen ezarritakoek hilabeteko preskripzio epea. Preskripzio epea, zehapena ezartzen duen errezoluzioa irmoa denetik hurrengo egunean edo zehapenaren gauzaketa bete ez denetik, hau jadanik hasi bada, zenbatzen hasiko da.

**14. Artikulua:** Zehapena jaso dutenei euren errehabilitazioa eskatzeko aukera ematen zaie, aurrekariak ezeztatzen direlarik, zehapena bete eta geroko ondorengo epeetan:

a) Sei hiletara, zehapena arau-hauste arinagatik izan bada.

b) Bi urtetara, zehapena arau-hauste larriagatik izan bada.

c) Lau urtetara, zehapena arau-hauste oso larriagatik izan bada.

Errehabilitazioa zehapena ezarri zuen organo berberaren aurrean eskatuko da eta horretarako prozedimendua, judiziamendurako eta faltaren zehapenerako jarraitu dena izango da, errekurtsio berdinekin.



KULTURA SALA  
Kultur Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE DE CULTURA  
Dirección de Deportes

#### **IV. Kapituluia: Erantzunkizunaren inguruabar aldarazleak**

**15. Artikulua:** Froga edo txapelketaren erregelen aurkako arau-hausteengatik erantzunkizunaren eximenteak dira:

- a) Ezusteko kasua.
- b) Ezinbesteko kasua.
- c) Eraso bat ekiditzeko legebidezko defentsa.

**16 Artikulua:** Erantzunkizunaren inguruabar aldarazleak.

1.- Disziplina erantzunkizuna aldarazten duten inguruabarrak aringarriak edo astungarriak izan daitezke.

2.- Kirol arau orokorren aurkako arau hausteei aplikagarriak zaizkien inguruabar aringarriak ondorengoak dira:

a) Probokazio nahikoa egotea arau-hauste egin baino arinagoko momentuan.

b) Damu espontaneo/berezkoa.

c) Egindako minaren konponketa, beti ere aurretiazkoa eta espontaneo/berezkoa bada.

3.- Aurrekoez gain, joku eta txapelketaren erregela orokorren aurkako arau-hausteei aplikagarriak zaizkien inguruabar aringarriak ondorengoak dira:

a) Iraganean kirol historialean inoiz zigortua ez izatea.

b) Egindako kaltea baino larritasun gutxiagoko bat egiteko nahia.

4.- Kirol arau orokorren aurkako arau hausteei aplikagarriak zaizkien inguruabar astungarriak ondorengoak dira:

a) Reiterazioa.

b) Prezioa.

5.- Aurrekoez gain, joku eta txapelketaren erregela orokorren aurkako arau-hausteei aplikagarriak zaizkien inguruabar astungarriak ondorengoak dira:

a) Erabaki arbitralak berehala ez onartzea, salbu eta portuera hori arau-hauste moduan tipifikatuta badago.



MULTURA SALA  
Añra Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE DE CULTURA  
Dirección de Deportes

b) Egindako arau-haustea dela eta, norgehiagoka baten ez-ohizko garapena eragitea.

c) Jokalari, entrenatzaile, ordezkari edo arbitro federazio lizentzia izanik, edozein arau-hauste burutzea ikusle moduan.

d) Aktan taldearen kapitain bezala agertzea.

e) Berrerorlea izatea. Berrerorketa egongo da, egilea aurretik zigortua izan denean denboraldian zehar, kirol disziplinari egindako larritasun berbereko edo handiagoko edozein urraketa dela eta, edo larritasun gutxiagoko bi arau-hauste edo gehiago egiteagatik.

6.- Kirol disziplina ahalgoaren egikaritzan, disziplina organoek eurek ondo deritzaten graduko zehapena jar dezakete, kontuan izanda egitateen izaera, erantzunkizuna duen pertsonaren izaera, arau-haustearen ondorioak eta astungarri eta aringarrien aldiberekotasuna.


## **V. Kapituluak: Kirol Disziplinaren Antolaketari buruz**

**17. Artikulua:** Euskal Hipika Federazioaren disziplina ahalgoaren egikaritzan Disziplina Epaileari eta Apelazio Batzordeari dagokie.

### ***Igo Atala: Disziplina Epaile Bakarra***

**18. Artikulua:** Epaile Bakarrak osatuko du Euskal Hipika Federazioko Disziplina Batzordea. Euskal Hipika Federazioko Zuzendaritza Batzak izendatuko du.

**19. Artikulua:** Zuzendaritza Batzako kideek ezingo dituzte Disziplina Epailearen funtzioak bete.



## II. Añala: Apelazio Batzordea

**20. Artikulua:** 1.- Apelazio Batzordeak gutxienez hiru kide eta gehienez bost kide izango ditu. Euskal Hipika Federazioaren Zuzendaritza Batzak izendatuko ditu bai Batzordearen Lehendakaria, baita bere kideak ere.

2.- Apelazio Batzordeko kideak lau urteko eperako izendatuko dira. Geroko aldietarako ere izendatuak izan daitezke beti ere.

Zuzendaritza Batzak Apelazio Batzordeko kideak euren karguetatik ken ditzake arrazoizko zio bategatik eta erresoluzio motibatu baten bidez.

Apelazio Batzordeko kideek materiaren inguruko ezagupen zehatzak izan behar dituzte edo egiaztatutako esperientzia horrelako zereginetan.

3.- Zuzendaritza Batzako kideak ezind ira Apelazio Batzordeko kide izan.

**21. Artikulua:** Disziplina Epaille Bakarrak ebatzitako errezoluzioen aurka ezarritako helegiteak ezagutzea Apelazio Batzordearen eskuduntza da.

Era berean, lurralde federazioen disziplina organoen erabakien aurkako helegiteen ezagutza ere, hauek horrela aurreikusten badute euren estatuto eta disziplina araudian.

Apelazio Batzordeak hartzen dituen erabakiak Kirol Justiziarri buruzko Euskal Batzordearen aurrean aurkaratu ahal izango dira.



KULTURA SALA  
Kirol Zuzendaritza  
DEPARTAMENTO DE DE CULTURA  
Dirección de Deportes

## II. TITULUA

### DISZIPLINA PROZEDUREI BURUZ

#### Igo Kapitilua: Printzipio Orokorrak

#### **22. Artikulua:** Disziplina Prozedurak.

1.- Disziplina erantzunkizunen arazketa/depurazioa prozedura arrunt eta aparteko prozeduraren bidez egindo da.

2.- Aparteko prozedura, lehentasun eta laburtasun printzipioetan oinarritzen dena, joku eta txapelketaren erregelen urraketari aplikagarria izango da nagusiki.

#### **23. Artikulua:** Disziplina eta zigor arloko erantzunkizunen aldiberekotasuna.

1.- Disziplina Epaileak, ofizioz edo alderdi interesatuaren ekimenez, delitu edo falta penalaren izaera izan dezaketen gertakarien berri emango dio Ministeritza Fiskalari. Kasu honetan, Epaileak prozeduraren etendura erabakiko du dagokion ebazpen judiziala eman arte.

2.- Dana dala, Epaileak beharrezkoak diren kautelazko neurriak har ditzake.

#### **24. Artikulua:** Disziplina eta administrazio erantzunkizunen aldiberekotasuna.

1.- Egitate bardin batek Kirol Legean eta bere garapenerako Erregelamendu publikoetan arautzen diren erantzunkizun administratibo eta Araudi honetan agertzen diren disziplina erantzunkizunak isor baditzaie, Euskal Hipika Federazioko Disziplina Epaileak, ofizioz edo alderdiak eskatuta, administrazio organo eskudunari jakinarazi beharke

dio, beste alde batetik disziplina prozedura ere aurrera eramango delarik.

2.- Epaileak erantzunkizun administratiboa soilik ekarri ahal duten egitateak ezagutuko balitu, aurrekarien berri emango die adminstrazio organo eskudunei.

**25. Artikulua:** 1.- Era berean, epaileak, expedientea hasterakoan, epaiaren eragingarritasuna babesteko edo kalte larri eta konponezin bat ekiditzeko beharrezkoak liratekeen kautelazko neurriak erabakitzeke ahalgoa izango du.

Neurri hauek expedientearen tramitazioak irauten duen bitartean eta bere ebazpenera arte indarrean egondo dira eta interesdunei jakinarzi beharko zaizkie dagokion helegitea jartzeko aukera izan dezaten.

2.- Ezingo dira hartu eta aplikatu legeek babesturiko eskubideen urraketa dakarten kautelazko neurriak.

**26. Artikulua:** 1.- Interesdunek prozeduraren edozein unetan egin dezakete atzera baina atzera egite horrek bakarrik izango du efektua berau adierazi duenarengan.

2.- Atzera egitea Epaile edo Apelazio Batzordearen aurrean aurkeztu beharko da, idatziz zein ahoz konparezentzi baten bidez, azkeneko kasu honetan beharrezkoa delarik dagokion dilijentzia zabaltea eta izenpetzea.

3.- Atzera egiteak disziplina expedientearen amaiera eta artxiboa ekarriko du, salbu eta eskaera hori egin ez duten beste interesdun batzuk egongo balira edo bai Epaileak edo Apelazio Batzordeak interes orokorreko arrazoiengatik prozeduraren jarraipena erabakiko balute.

## II. Kapituluak: Prozedura Arruntari buruz

**27. Artikulua:** 1.- Kapitulu honetan arautzen den Kirol disziplina prozedura Epaileak hasiko du probidentzia baten bitartez.

2.- Probidentziak gutxienez ondorengo datuak izango ditu:

- Expedientearen hasiera arrazoitu duten egitateen erreferentzi laburra eta gertatu ziren data.
- Expedientearen hasiera data.
- Interesdunak edo ukiturikoak/afektatuak.



KULTURA SAIA  
Kirol Zuzendaritza  
DEPARTAMENTO DE DE CULTURA  
Dirección de Deportes

d) Hartu diren kautelazko neurriak, bere kasuan.

e) Epaileak eskatu dituen frogabideak edo epaileak edo hirugarrenen eskutik atxiki dizkioten dokumentuak, bere kasuan.

3.- Federazioko Idazkariak edo honen ordezkioak interesdunei jakinaraziko die probidentzia.

**28. Artikulua:** 1.- Epaileari aplikagarri zaizkio administrazio prozedura orokorrerako indarreko legedian aurreikusten diren abstentzio eta ezespen kausak.

2.- Ezespen eskubidea Epailearen aurrean egikari daiteke hiru egun baliiodunen barruan, expedientearen hasiera adierazten duen probidentzia eman eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

3.- Bost egun baliiodunen epean Epaileak Zuzenbidearen arabaera erabakiko du, eta erreklamazioa berragertu ahal izango da ebazten den erresoluzioaren kontrako helegiteak direla eta.

**29. Artikulua:** Epaileak salaketa jasotzen duenean edo ustezko urraketa baten berri duenean, expedientearen hasiera erabakitzen duen probidentzia ebatzi aurretik erreserbatutako informazioaren instrukzioa agindu dezake edo bere kasuan, expedientearen artxiboa.

**30. Artikulua:** 1.- Expedientea hasita, bere hasiera jakinarazita, eta bere kasuan, Epaileak beharrezkoak egokiesten dituen kautelazko neurriak harturik, jakinarazpenaren hurrengo hamar egunetan froga fasea irekiko du gutxienez bost egun eta gehienez hogeit hamar egunetako tartean eta horretan, egitateen argiketarako eta euretatik ondorioztatzen diren erantzunkizunak zehazteko beharrezkoak diren froga dilijentziak burutuko dira.

Epaileari dagokio burutu beharreko dilijentzien zehaztapena bai bere ekimenez zein interesdunek aurreko paragrafoan aipatutako epean idatziz aurkeztutako eskaera edo proposamena del aeta, kasu honetan interesdunei jakinarazi beharko zaielarik agindutako edo onartutako frogak gauzatzeko lekue, eguna eta ordua.

2.- Expedientearen tramitazio eta ebazpenerako egitate garrantzitsuak zuzenbidean onartutako edozein froga moduz akreditatu ahal izango dira.

3.- Frogen praktikaren onarpen edo ezeztapenaren inguruko epailearen erabakien kontra ezin daiteke helegiterik ezarri nahiz eta interesdunaren



eskaera, bai erresoluzioaren aurreko tramitean zein erresoluzio horren kontra jar daitezkeen helegiteetan berriro azaldu.

**31. Artikulua:** 1.- Egindako izapideak aztertuz, Epaileak, frogaldia amaitu eta hurrengo hamar egunetan kargu-plegu bat formulatuko du eta bertan leporatutako egitateak, egindako frogen emaitza bere kasuan eta expedientearen erresoluzio proposamena azalduko dira. Guztia interesdunei jakinaraziko zaie, jakinarazpenetik zenbatzen hasita hamar egun baliodunen epean euren eskunide eta interesen defentsan egoki deritzena adierazi dezaten.

2.- Kargu-plegua eta erresoluzio proposamena erantzunik, edo aipaturiko epea igaro bada interesdunen inolako alegazio gabe, Epaileak hamar eguneko epean ebatziko du.

3.- Erresoluzioa eman aurretik, Epaileak interesdunek momentu egokian proposaturiko eta azkenean aurrera eraman ez diren frogak, proposatzaileari egoki ezin zaion edozein arrazoi dela eta, egitea agindu dezake gaia hobeto erabaki ahal izateko, horretarako erresoluzioa ebatzeko epea etengo delarik.

**32. Artikulua:** Erresoluzioaren bitartez amaiera ematen zaio expedienteari nahiz eta federazio apelazio helegitea edo bigarren instantziara jotzeko aukera izan.

### **III. Kapitulua: Aparteko Prozedurari buruz**

**33. Artikulua:** 1.- Epailearen berehalako parte hartzea beharrezkoa den kasuetan, jokua erregelen urraketaren bat edo kirol konpetizio baten ondoriozko urraketaren egon delako eta horren ohiko garapena bermatzeko, Epaileak aldi berean ospatu ahal izango ditu interesdunen alegazioen tramitea, ahozkoa izango dela xedatuz, eta frogen praktika, hauen artetik garrantzi handiena izango dutelarik arbitro aktak edo arbitroaren edo Federazio Ordezkararen informeak, eta erresoluzioa ebatziko du konpetizioaren ohiko garapenak edo jarraipenak eskatzen duen premiarekin.

2.- Era berean, Disziplina Epaileak behin-behineko etenaldiak edo beharrezkoa litzatekeen beste edozein kautelazko neurri har dezake.

3.- Interesdunen aurretiazko entzunaldiko printzipioa ~~eta hartutako~~ erabakien kontra helegitea jartzeko eskubidea dagokion instantzien bitartez, beti egongo dira bermaturik.



KULTURA SAIA  
Kirol Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE DE CULTURA  
Dirección de Deportes

#### IV. Kapituluak: Jakinarazpenak eta Helegiteak

**34. Artikulua:** 1.- Kirol disziplina prozeduratan ebatzitako probidentzia eta erresoluzioak arrazoituak izan beharko dira eta interesdunei jakinarazi beharko zaizkie, hamar egunetako epean eman direnetik aurrera prozedura arruntaren kasuan eta bost egunetako epean aparteko prozeduraren kasuan, bertan adieraziz zein den erabakien edo akordioen edukia eta zeintzuk diren kasu bakoitzean erabili ahal diren erreklamazio edo helegiteak.

2.- Jakinarazpenak interesdunen helbide edo egoitza sozialean egingo dira gutun ziurtatu, telegrama edo interesdun horiek jakinarazpena jaso dutela ziurtatzea ahalbideratzen duen beste edozein komunikazio bide rehabilita.

3.- Epaileak edo Apelazio Batzordeak erresoluzioaren argitalpena, difusioa edo jakinarazpen publikoa agindu dezakete, beti ere indarreko legediaren arabera pertsonen ohore eta bizitza pribatua errespetatuz, akordio edo erresoluzioaren garrantziak eta ondorioek horrela eskatzen dutenean.


**35. Artikulua:** 1.- Interesdunek euren erreklamazio edo helegiteak hamar egunetako epean jar ditzakete.

2.- Araudi honetan edo estatutu edo lege xedapenetan ez bada berariaz eperik ezartzen, kirol disziplina arloan egindako erreklamazio edo helegiteak ez direla onartu ulertuko da hogeita hamar egun igaro badira jarri zirenetik baina hala ere, Batzordeak berariazko akordio edo erresoluzioa emateko duen betebeharra mantentzen da.

3.- Aurreko zenbakietan aipatutako epeei dagokienez, lehenengoa zenbatzen hasiko da helegitea jartzen den akordio edo erresoluzioaren jakinarazpena egin eta hurrengo egunetik, eta bigarrena artikuluko honen arabera erreklamazioa edo helegitea atzera bota dela ulertu behar den hurrengo egunetik aurrera.

**36. Artikulua:** Interesdunek Euskal Federazioko Disziplina Epaileak eta lurralde federazioetako disziplina organoek lehenengo instantzia emandako ebazpenak Euskal Hipika Federazioko Apelazio Batzordearen aurrean errekurritu ahal izango dituzte.

**37. Artikulua:** 1.- Helegiteak idatziz legezkotu/formalizatu eta aurkeztuko dira Apelazio Batzordearen aurrean.



KULTURA SALA  
Kiral Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE DE CULTURA  
Dirección de Deportes

2.- Helegiteak legezkotzen/formalizatzen diren idazkiek hurrengo edukia izan behar dute:

a) Helegitegilearen eta gaian interesa duten gainontzekoen identifikazioa, euren legitimazio aktibo edo pasiboa arrazoituz.

b) Errekurritzen den egintza, akordio edo errezuluzioaren aipamen argia, horren kopia erantsiz berariazkoa izan bada, edo, gutxienez, expediente zenbakia eta errekurritzen den errezuluzioaren data aipatuz.

c) Helegitea arrazoitzen duten alegazioen eta horiek oinarritzen diren xedapenen azalpena.

d) Bere kasuan, bigarren auzialdian burutu beharreko frogen aipamena.

e) Adierazten diren asmoen zehaztapena.

3.- Edozein kasutan, helegitea berau jarri eta gehien jota hogeita hamar egunetako epean ebatziko da.

Helegitea aparteko prozedura baten ebatzitako errezuluzio baten aukakoa bada, epea zazpi egunetakoa izango da, edo aurretiaz finkatu bada epea laburragoa ere izan daiteke.

**38. Artikulua:** Helegitea aurkezteak ez dakar epaiaren betetzearen etendura salbu eta Apelazio Batzordeak horrela erabakitzen badu ofizioz edoa interesunak eskatuta.

**39. Artikulua:** Euskal Hipika Federazioko Apelazio Batzordeak ebatzitako disziplina akordio edo errezuluzioek federazio bidea agortzen dute eta Kirol Justiziaren Euskal Batzordearen aurrean errekurritu ahal izango dira.

2.- Kirol Justiziaren Euskal Batzordeak ebatzitako disziplina akordio edo errezuluzioek administrazio bidea agortzen dute eta aplikagarri diren jurisdikzio arauen arabera administrazioarekiko jurisdikzioaren aurrean errekurritu izan daitezke.

**40. Artikulua:** Euskal Hipika Federazioak ezarritako zehapenen liburu edo erregistro bat edukiko du, bere kasuan, ezarritako zehapenaren izatea eta bere data, preskripzio epeak, kausa aldarazleren baten aldebereotasuna eta errehabilitazio eskubidearen egikaritzea ikus/nabaritu daitezkeen bereiziki.


**41. Artikulua:** Prozedura arloan, ordezkotza izarekin, Euskadiko Kirol Legean eta kirol disziplina arautzen duten Erregelamendu publikoetan eta, bere kasuan, Euskal Hipika Federazioko Estatutuak eta administrazio prozedura arrunteko arauetan ezarritakoa aplikatu da.

**ARAU IGORPENA:** Espaiakiako Hipika Federazio Errealeko ondorengo araudia, 14/1998 Euskadiko Kirol Legearen eta Eusko Jaurlaritzak kirol disziplinari buruz onartutako erregelamenduzko xedapenen kontrakoa ez den bitartean, aplikagarria izango da eta barne araudiaren parte izango da:


a.- EHFeko disziplina araudia.

b.- Albaitaritza araudia.

Araudi hau indarrean sartuko da Eusko Jaurlaritzako Kirol Zuzendaritzak onartu eta Euskadiko Entitate Erregistroan inskribatzen denetik aurrera.



Idazkaria



Lehendakaria

2007ko uztailaren 24ko Ez – Ohiko Batzar Orokorrean onartua



KULTURA SALA  
Kirol Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE DE CULTURA  
Dirección de Deportes